

**SERANTES KULTUR ARETOA
AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUKO SAIOAREN AKTA**

2016ko IRAILAREN 27ko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan, arestian aipatutako eguneko hamarrak eta hogeita hamar minutu direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak aldez aurretik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Kontseiluko kideak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Ivan López Arenas jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Daniel Urkiaga Alberdi jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.

Pedro Miguel Lucena Balda jn.. Euskal Sozialistak Udal Taldea (PSE-PSOE).

Imanol Urtiaga Palacios jn., Bildu Udal Taldea.

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Kontu-hartzailearen orde: Juan Ramón Rodríguez García jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1.- 2016ko UZTAILAREN 26ko BILERAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Artezkaritza Kontseiluak 2016ko maiatzaren 31ko bileraren akta onartzea adostu du. Bildu Udal Taldeko Imanol Urtiaga Palacios jaunak eta Euskal Sozialistak udal taldeko Pedro Miguel Lucena Balda jaunak abstentzioa agertu dute bileran izan ez zirelako.

2.- 2016ko UZTAILAREN 31ra ARTEKO SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEKO AURREKONTUAREN BETEARAZPEN-EGOERA AURKEZTEA.

Kontseiluburu jaunak azaldu du talde guztiei helarazi zaiela idatziz. Hortaz, ez denez inolako parte hartzerik izan, Artezkaritza Kontseilua gai honen jakinaren gainean dagoela ulertzen da.

3.- SERANTES KULTUR ARETOAN ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN 27. UDAL ZERGA ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Bringas Egilior jaunak hitza hartu du eta adierazi du proposamen hau ekartzeko arrazoia formatu handiko ikuskizunak direla. Onartuta dauden prezioen arabera, txarteldegian programatuz gero programaziotik kanpo gera daitezkeelako. Zuzendari jaunari eman dio hitza.

Morán jaunak azaldu du SKAk gutxirekin asko egin nahi duela eta, horren harira, txarteldegian kontratatutako ikuskizunak ekartzen saiatzen dela, horietako batzuk formatu txiki eta beste batzuk formatu handikoak izanik. Azken horien kasuan, zeinek ez duten aurrekontu esleipena oso kaxet handia dutelako, txarteldegian kontratatzeko aukera dagoenean, sarreraren prezioen tarte zabala izatea komeni da, dugun edukieraren arabera, taldeak bere kostuak estali ahal izateko prezio onargarria negoziatu ahal izateko. Morán jaunak jarraitu du eta azaldu du ikuskizun hauek metropoli eremuko eta zaletasun handia duen publikoarentzat direla eta prezioa ordaintzeko prest egoten direla. Ildo honetan, SKAk antzetzeko eremua utzi baino ez luke egingo eta SKA ezagunago egingo lukete.

Morán jaunak adierazi du, duela gutxi ikuskizun batekin gertatu dela. Bira atzeratu bada ere, estreinatu zenean 45 eurotan saldu ziren sarrerak eta ekoizpenak Santurtzira etortzeko interesa bazuen ere, oraingo prezioen tarteak ez zuen biderik ematen.

Proposamenak sarrera garestiagoen alde egiten badu ere, normalean ez dutela aplikatuko adierazi du; izan ere, oso kaxet altua duen operaren kasuan izan ezik, gure sarrerak ez dira garestiak izaten.

Lucena Balda jaunak galdetu du SKAk zergatik eskaini nahi dituen horrelako ikuskizunak. Morán jaunak erantzun dio horrelako ikuskizunek hedabideak ekartzen dituztela eta azken hauek SKA ezagunago egiten dutela. Gainera, programazioa kalitatezkoa eta askotarikoa bada, eskaria zabaltzen laguntzen du. Programazioa popularrena eta, adierazteko hitzik egokiena ez den arren, elitistena aurkeztuz indartzen da. SKAk Arriaga Antzokian dauden lan asko programatzen du eta, zenbaitetan, sarreraren prezioa oztopoa izan daiteke.

Bringas Egilior jaunak adierazi du herria sustatzeko oso interesgarria dela, erakusleihoa delako eta oso positiboa delako jendea herrira etortzea eta hemen gastatzea.

Urkiaga Alberdi jaunak galdetu du erosteko ahalmen gutxiago dutenentzat zeintzuk neurri dauden.

Morán jaunak erantzun du programaziora sarbidea errazteko politika dagoela, neurrizko prezioak direlako; izan ere, normalean dagoen prezioa 10-18 eurokoa izaten da. Era berean, SKAko bazkide txartelarekin ikuskizunetarako beherapenak egiten dira eta euskaltegiei euskarazko

lanetarako % 50eko deskontua eskaintzen die. Heziketa zentroentzat ere badira beherapen edo abonua. 25 urtetik beherako ikasle eta langabetuentzat % 50eko deskontua dago ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago. Taldeentzat sarreraren prezioaren % 20ko deskontua dago. Azkenik, Morán jaunak adierazi du publikoa sustatzeko politika dagoela, baina une jakin batean prezio altuko ikuskizuna izatea egokia balitz, burutzea komenigarria litzatekeela.

Urtiaga Palacios jaunak adierazi du gai konplexua dela eta nahiz eta neurri honek SKA elitista bilakatuko ez duen, zalantzak sortzen dizkiola.

Euskal Sozialistak eta Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldeek ere zalantzak dituztela adierazi dute.

Beste parte hartzerik egon ez denez, gaia bozkatu egin da.

EAJ-PNV eta Euskal Sozialistak Udal Taldeek baiezko botoa eman dute, Sí se Puede Santurtzi, Bildu eta Euskal Sozialistak Udal Taldeek, berriz, abstentzioa agertu dute.

4.- SANTURTZIKO MUSIKA TALDEEK KARMENGO JAIETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA IKERTU ETA EZTABAIDATU.

Bringas Egilior jaunak hitza hartu du eta gai hau ekartzea aurreko Artezkaritza Kontseiluan erabaki zela adierazi du.

Bringas Egilior jaunak, bestetik adierazi du musika taldeen eskaria harrigarria iruditu zaiola, lehen Karmengo jaietako agertoki nagusian jotzeko eskaria egiten zuten arren, orain, aurkeztu den mozioan ulertzen denaren arabera, Karmengo jaietan jotzeko eskaria egiten dutelako.

Kontseiluburu jaunak jakinarazi du maiatzean talde bateko abeslaria den Angel Goiztiagarekin izan zela eta proposamena aurkezteko hitza eman zuela, orain arte heldu ez dena. Bringas Egilior jaunak jakinarazi du, jaiak eta taldeen idatzizko aldarrikapena izan aurretik, Santurtzi Irratiko Salvarekin hitz egin zela herriko musika taldeak bultzatzeko.

Horregatik guztiagatik, Egilior Bringas jaunak galdetu du ea Karmengo jaietan jotzeko konpromisoa eskatzen duten, bera baita horren alde egiten duen lehena, edo agertoki nagusian jotzea. Halaber, Kontseiluko Udal Taldeei azken urte hauetan herriko musika taldeek burutu dituzten joaldien zerrenda helarazi zaiela adierazi du, eta bertan askotan jo dutela ikusten dela.

Bringas Egilior jaunak Morán Arsoategi jaunari eman dio hitza. Azken horrek adierazi du ez duela emandako informazioa errepikatu nahi. Lehen Udal demokratikotik herriko taldeek Karmengo jaietan jo dutela adierazi du eta 90ko hamarkadan batzordea osatzera heldu zirela, zeinetan zeuden talde guztien maketak entzuten ziren jaietan nork joko zuen erabakitzeko. Kontzertu hauek egiteari utzi zioten, taldeetako programazioa errepikakorra zelako.

Morán Arostegi jaunak jarraitu du eta azaldu du duela bi urte Gernika parkean izan zela herriko taldeen kontzertua eta oso jende gutxi joan zela. San Jorge jaietan jotzea egokiagoa dela uste du eta jai-eremuan, publiko gehiago egotea ekartzen duelako.

Morán Arostegi jaunak azaldu du, bere ustez, herriko taldeek Karmengo jaietako agertoki nagusian jotzea ez dela egokia, eremu horretan bost mila pertsona baino gutxiago biltzen badira, programazioa porrota delako. Morán Arostegi jaunak jarraitu du eta adierazi du espero den ikus-entzule kopurua eta eremu hori erabiltzeak ekartzen dituen kostuak kontuan harturik, horrelako kontzertuak burutzeko ez dela egokiena.

Morán Arostegi jaunak, bestetik, kontratatutako musikariek baino lehenago jotzeko aukerari dagokionez adierazi du kontratazeko zailtasuna izan daitekeela. Izan ere, horrelako kontratuetako kosturik altuena aukerarena da eta herriko taldeek hasieran jotzea exijitzea kontrataziorako baldintza negatiboa izan daitekeela. Gainera, kontzertuaren antolaketa teknikoki zailtzen du, iraupena luzatu eta, gainera, kontratatuen eta herriko taldeen estiloak bateragarriak izatea oso zaila da.

Urtiaga Palacios jaunak Zuzendari jaunaren txostenaren tonuak harridura eragin diola eta bere ustez txostenean kontraesanak daudela adierazi du, txostenean zehar herriko taldeek jotzeko argudioen kontra egiten duen arren, azken zatian jotzeko aukera egon daitekeela, baina ez agertoki nagusian, adierazi baitu.

Urtiaga Palacios jaunak, bestetik, azaldu du mozioan agertzen zen beste taldeen aurretik jotzeko proposamena herriko taldeek ez dutela bideragarri ikusten, banda handiek ez dutelako nahi, baina posiblea litzatekeela jaietako egun bat gordetzea agertoki nagusian jotzeko.

Zentzu honetan, Urtiaga Palacios jaunak adierazi du Musika Bandak egun batez jotzen duela eta talde hauek ere eskubidea dutela Karmengo jaiak jauzi ohol modura erabiltzeko. Asteburuko egun bat gorde litekeela uste du, barne kontsumorako, herriko jendeak egindako musika entzuteko. Taldeekin udan hitz egin duela eta bilera hau izan aurretik ere haiekin izan zela eta taldeek agertoki nagusian jotzearen alde egiten dutela adierazi du.

Lucena Balda jaunak hitza hartu du eta adierazi du Morán jaunak txostenean erabilitako tonua leundu duela arrazoiak azaldu dituenetan eta bere ustez txostenak tonu gogorra zuela eta bidezkoak diren bestelako iritziak egon daitezkeela. Ez du ulertzen zein arazo egon daitekeen jaietako lehen asteburuko egun batean jotzeko, Karmengo jaietako agertoki nagusian.

Urkiaga Alberdi jaunak ere txostenaren tonuari buruz aritu da, ezegokia iruditu zaiolako, eta txostenean akats batzuk direla uste duela adierazi du, adibidez, soinu ekipoak erabiltzeko tailerra kontzertutzat hartu duela. Kontzertuak errepikakorrak izan daitezkeela azaltzen da txostenean eta hori saihesteko modua badago, urtero talde desberdinek joz gero. García Sáez jaunaren ustez ere ez dago arazorik taldeak aukeratzeko, taldeek berek

osatutako Epaimahaia era litekeelako. García Sáez jaunak adierazi du talde guztiek kobratzen badute, zergatik ez zaien amateurrei ordaindu nahi, musikariak gizarte segurantzaren eman ahal zaielako alta.

Morán Arostegi jaunak erantzun du esan behar duena esan duela uste duela eta bere txostenaren tonua ez bazaie gustatu, agian idazteko moduagatik izan dela, baina txostenean Udalarekiko leialtasunak agindu diona adierazi duela.

Taldeen ordainketari dagokionez, Morán Arostegi jaunak adierazi du administrazioa izanik, herriko taldeek jotzen zutenean, beren kontzertua ordaintzeko, joan-etorrietarako gastuak ordaintzeko dieta edo gastu-fakturaren bat ordaintzen zitzaiela, bestela, IFK ez duten taldeak direnez, enpresaburuaren rola hartu behar dela eta gizarte segurantzaren alta eman musikariei eta abar eta horrek administrazio-zama handia zekarrela.

Morán Arostegi jaunak azkenik azaldu du, printzipioz paperaren gainean dena egingarria den arren, eskarmentuak protokoloa ezarri behar dela aholkatzen duela zeintzuk diren herriko taldeak eta zeintzuek jo behar duten urtero zehazteko.

Bringas Egilior jaunak izan duen harridura berretsi du, bere ustez honek guztiak ez duelako zentzu handirik, Karmengo jaietan taldeen kontzertuei estaldura emateko hiru proposamen dituen mozioa delako, SKAk bat aukeratu eta, hala ere, orain taldeek proposamen bakarrera mugatu dutela adierazi digutela eta ez dela SKAk aukeratu duena. Bringas Egilior jaunak Urtiaga jaunak taldeekin biltzeko egin duen eskaerari erantzunez ez duela inolako arazorik adierazi du, baina jakin nahi duela zeintzuk talde diren, zenbaitetan ez direlako egonkorrak.

Urtiaga Palacios jaunak esan du ez duela trabak jartzeko diskurtso hori gustuko eta esfortzua egitea merezi duela bere ustez. Atzo izan zutela kide batekin bilera eta eskatu ziotena ari dela defendatzen.

Urkiaga Alberdi jaunak esan du oso arin egin dutelako gertatu dela dena eta txosten teknikoa jaso zutenean, herriko talde batzuetako kideekin jarri zirela harremanetan eta azkenean konturatu direla agertoki nagusian jotzeko eskatzen zutela. Hala ere, talde gehiagorekin bildu behar zirela; izan ere, ez zuten guztiak ordezkatzen. Bere ustez guztiekin egin beharko litzateke bilera.

Urtiaga Palacios jaunak planteatu du agian konpromisoa egon beharko litzatekeela Presidentea taldeekin biltzeko.

Morán Arostegi jaunak adierazi du, bere ustez, oinarriak egin beharko liratekeela nortzuek jo behar duten, nola ordaindu behar zaien eta abar ezartzeko, hori garrantzitsua delako SKAk baliabideak eta eremuak antolatzeke.

Morán Arostegi jaunak azaldu du ez dela erabaki teknikoak, ez delako ohiko kontratazio artistikoa, eta Artekantz Kontseiluan azaldutako bestelako alderdi batzuk hartzen direla kontuan gero teknikoki egokitu behar direnak.

Bringas Egilior jaunak adierazi du Mi Dulce Geisha taldeko kideari deituko diola. Presidenteak herriko taldeek jaietan jotzeko eremua sortzeko eta haiekin egoteko borondatea badu, Urriaga Palacios jaunak eskatu du bilera horretan oposizioa ere egotea, esperientzia faltagatik ondo etorriko litzaiokeelako eta, gainera, egin nahi diren ekarpenak egiteko.

Bringas Egilior jaunak adierazi du ez duela eragozpenik jarriko oposizioko taldeak bileran egoteko, baldin eta ez badute guztiek batera agertoki nagusian jotzearen alde egingo. Urriaga Palacios jaunak erantzun du beste irtenbide batzuk ere onar ditzaketela eta ez dutela aukera bakar baten alde egingo.

Gai zerrendaren hurrengo puntua jorratzen hasi dira.

5.- BATZORDEBURUAREN GAIAK

Bringas Egilior jaunak 2016ko Karmengo Jaietako Oroi-txostena banatu du azken Kontseiluan eskatu zioten modura.

Bringas Egilior jaunak, bestetik, SKAko langileek jarri zuten helegiteari dagokionez, subrogatu zituen Gurbisa enpresak, leihatila-, atezaintza-, kokapen- eta zine-zerbitzuak ematen zituenak, denok dakigun bezala langileei ordaintzeko arazoak izan zituelako. SKA helegitearen aurka jarri zen eta horren ondorioz, hogeita mila euro ordaindu beharrean, bost mila euro baino ez dira ordaindu behar izan. Morán Arostegi jaunak hartu du hitza eta adierazi du SKA langileen aldarrikapenaren aurka jarri zela, dagokion bezala, udaleko interesak babesteko.

Halaber, Bringas Egilior jaunak jakinarazi du leihatila-, atezaintza-, kokapen- eta zine-zerbitzuak emateko kontratuari dagokionez, lizitazioa hasiko dela eta maiatzean langileekin bildu zela, bai eta SKAk Udaleko ildo jarraitzea eskatzen zuen sindikatu bateko ordezkari batekin ere. Bringas Egilior jaunak adierazi du langile batzuk Gizardaz Hitzarmenean sartzea egoki ikusi dutela eta, horregatik, baldintzak hobetuko zaizkiela, zehatzago esanez, Casa Torre Jauregian lan egiten dutenek. SKA zinematografia eta antzerki ekipamenduan lan egiten dutenak, berriz, oraingoz ez direla hitzarmen horretan sartuko adierazi du. Dena den, urte baterako egingo da hitzarmena, eta tarte horretan Gizardaz Hitzarmena aplikatzea egokia den ikertuko da, gaur egun ez dagoelako argi.

Lucena Balda jaunak adierazi du desadostasuna omen dagoela, ELA sindikatuaren ustez langile guztiak sar litezkeelako Hitzarmen horretan. Bringas Egilior jaunak planteatzen duen neurriari esker, ematen du langile batzuk enpresaren hitzarmena izango dutela eta Casa Torre Jauregikoek beste bat.

Morán Arostegi jaunak adierazi du kasu bakoitzean dagokion hitzarmena aplikatu beharko dela. Horren haritik, zentro zibikoak antzerki eta zinema erakusteko zentroarekin ez duela zer ikusirik azaldu du.

Morán Arostegi jaunak azaldu du beste Autonomiadun Erkidegotan eszena-arte eta zinematografia erakusteaz arduratzen diren hitzarmenak SKAko langileei aplikatzen zaien soldatak baino baxuagoak direla. Hala ere, lizitatu beharreko kontratuaren baldintzetan legalki dagokion Hitzarmena aplikatzeko jartzen du.

Urkiaga Alberdi eta Urtiaga Palacios jaunek Morán Arostegi emandako azalpenekin ez daudela ados adierazi dute.

Urtiaga Palacios jaunak adierazi du Udalbatzak gizarte-baldintzak onartu baditu, badela garaia kontratueta aplikatzeko.

López Arenas jaunak adierazi du langileen baldintzak hobetzeko dela, beti ere legearen barruan, ez kanpoan.

Bringas Egilior jaunak azaldu du oraingo honetan urte beteko kontratua egingo dela, arriskutsua delako usteaz antzerki eta zinema emanaldiak egiteko helburua ez duen hitzarmena aplikatzea eskatzea.

Bringas Egilior jaunak jarraitu du eta esan du azken urteotan subkontratututako langileen baldintzak hobetu direla.

Urtiaga Palacios jaunak adierazi du oso soldata txikiak zirela, zenbaitetan 800 eurotara ere heltzen ez zirenak. Bere ustez, borondate politikoa da. Zerbitzu duinak emango badira, baldintza duinak izan behar dituzte, horixe delako dagoen konpromisoa. Hortaz, urrian lizitazio berria badago, baldintza horiek aplikatu behar dira.

Gai zerrendaren hurrengo puntua jorratzen hasi dira.

6.- GALDE-ESKEAK

Urtiaga Palacios jaunak adierazi du Karmengo jaietako oroi-txostena ematen denean eta hauetan inbertitzen den zenbatekoa azaltzen denean, zenbateko hori herrira itzultzen delako leloa gehitzen da. Horren haritik, nola kuantifikatzen den eta nondik ateratzen den ondorio hori galdetu du.

Morán jaunak azaldu du duela zenbait urte egiaztatu zela. Ostalari, merkatariari eta abarri galdetu zieten zuzeneko eragina bilatzeko. Txosnetan eta abarretan zenbat saltzen zen ere hartzen zen kontuan. Ukiezinak ere hartzen ziren kontuan, hala nola, herriaren ospea, metroz heltzen zirenen kopurua, adibidez, edo oinez etortzen zena. Datu hauek guztiak kontuan harturik egiten zen ekonomia-eraginaren balorazioa. Morán jaunak esan du datu haiek lortzen saiatuko dela. Dena den, Morán jaunak gogoratu du badakigula jaiek diru asko

mugitzen dutela, baina berdin dela gaur egun zein 2007an, ikerketa egin zen urtean.

Urtiaga Palacios jaunak berriro esan du datu horiek izan nahiko lituzkeela.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, goizeko hamaikak eta hogeita hamahiru minutu direnean. Eta nik, Idazkari Eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.